



## ITZULPEN ARAZOAZ

1977 - I - 28

*Rikardo Badiola*

Agur Jaunak:

Hemen agertu nahi nuke sail honen beharrizan gorria. Zeren, gure Euskarari ateak irekitzea komenigarria baita eta ez herstea. Euskara bizi, sendo eta zabaldu nahi baldin badugu itzulpen sail hau zaintzea behar beharrezkoa dakusagu. Hizkuntza batek bere adarrak eta sustraiak zabaltzen ez baditu, zuhaitz baten antzera, ihartu eta gero husteldu egiten da.

Orain arte, irailetik hona, eginiko itzulpenak honela banatzen dira: 30 lantegi eta beraietako arazoez; 40 merkatal arlokoak; 25 eskela; 15 ikastolako arazoez; 10 eleiza eta parroketako arazoez; 25 lan famili elkarten gora-beherez; 30 lan eskualdeetan dauden nekazal eta industri arazoez; 26 erakunde ofizialetakoak, etab.

Dakusazuenez, jendearen eskakizunek alde guztietatik jotzen dute. Orduan, zer egin dezake, jende honi euskara gauza guztietan erabaki gabe aurkitzen dela eta ezin dela itzulpenik egin? Ala itzulpenok egiten joan eta ahal izanez gero, gehitu eta bultzatu, euskarak sail guztietan parte har dezan. Gainera, ene ustez, eta uste dut zuena ere honela izanen dela, hau da, euskarak egungo gizarte arazoei erantzun behar diela eta ezin ditugula albo batetara utzi, teknik gizartea eta ez industri arazoa ez eta hirietako bulego arazoak ere. Zeren, arazo hauk bertan behera uzten baditugu, euskara makaldu eta hil egingen baitzaigu. Egun, ezin dezakegu euskara baserri eta nekazal arlora bazter, bestela txirotu eta makaldu egingo zaigu.

Une honetan ditugun eskakizunak ikusirik, eta honetarako ni erdiska ari naizenez, zeren *Euskaltzaindiako* liburu argitaralpenak eta kontsulta saila ere egin behar baititut, ez naizela iristen, esan behar dut. Alde batetik bakarrik egin behar ditudalako itzulpenok —ene eritziz bik edo hiruk osotu behar lukete sail hau— eta bestetik talderik ez dagoenez itzulpenok, batzutan, erdiska irteteko arriskutan daude, zeren ez baitut inor kontsultatzeko. Behar beharrezkoa dakust itzulpen sail hau sendotu eta berriztatzea. Gehienbat erabiltzen ditudan liburuak hauk dira:

- 1) *Zortzi urte arteko ikastol hiztegia.*
- 2) *Merkatalgo izendegia.*
- 3) *Herri eta Herritarren izendegia.*
- 4) *Euskal izendegia.*
- 5) *Idatz arauak.*
- 6) *Euskaltzaindiko aditz batua.*
- 7) Hiztegiak:
  - a) *Azkue*
  - b) *Axular*
  - c) *Mugika*
  - d) *P. Lhande*
  - e) *Natur Zientzia*
  - f) *Euskal hiztegi modernoa.*

Orain arte, kontseilari gisara pertsona hauengana jo dut: I. Berriatua, X. Kintana, J. R. Etxebarria, X. Mendiguren. Denok Bilbo inguruan dabiltzanak. Gure aspaldiko ametsa hau da, itzulpen taldeño bat sortzea komenigarri litzatekela.

Ene ustez, itzulpenok egiterakoan *Euskaltzaindiaren* arauak jarraitu bai, baina ez dut uste haren baieztasunari begira izan behar dugunik ez eta haren bedeinkazioari ere. Euskara gaurkotze prozesu batetan aurkitzen zaigu eta askotan *Euskaltzaindiak* oraindik erabaki gabeko hitzez baliatu behar dugu, bestela gure hizkuntza itto eginen zaigu eta gu berarekin. Ezin dugu *Euskaltzaindiak* hitz bat edo terminu berri bat nola den edo nola izanen deni, zain izan. Lehen urratsa, idazle eta euskara sail guztietara zabaltzea nahi dugunok eman behar dugu, eta gero, hitz edo terminu berriari zabaltzen hasten denean, orduan ikertu beharko luke ea ongi ala gaizki dagoen. Ene ustez Akademiak ezin du oztoporik